

GLOSARIOA

ADIERAZLEA: Portaera funtzionala edo disfuntzionala, beharra edo gaitasuna adierazten duena eta bere egokitasuna edo egokitasun eza kualitatiboki eta/edo kuantitatiboki defini daitekeena. Hori guztia aplika dakieke hala emaitzei (erabiltzailearen portaera batetaz hitz egingo dugu), nola prozesuari (beste agenteen portaeraz hitz egingo bagenu).

AGENTEAK: Proiektu batean esku hartzen dituzten giza baliabide guztiak dira. Erabiltzaileak ere agente dira (beren aldaketako protagonistak, agenteak, izatea nahi dugula esaten dugu).

ALDERDI BALDINTZATZAILEAK: Helburua lortzea eragozten edo zailtzen dituzten ingurune zabaleko elementuak (gizartekoak, lege alorrekoak, erakundekoak, antolakuntzakoak, komunitatearenak,...), erabiltzaileen ingurune hurbilekoak eta programaren edo proiektuaren elementuak.

ARAZOA: Espero ez den emaitza bat.

Aurreikusitakoa ondo egiten ari gintezke, onak izatea lanean, baina eraginkorrak ez, helburuak ez lortzea. Azterketan, agian, oker ibili gara,... .

BALIABIDEAK: Finantzaketa, giza, material aukerak, teknikak. Materialak, lokalak, teknologiak, pertsonak, dirua (giza eta gauza baliabideen azpibanaketa, baliabide instituzionalak eta sozialak...).

BALIABIDEAK: Programa edo proiektu bat aurrera eramateko dauzkagun tresnak, agenteak. Giza edo gauza baliabideak izan daitezke (horien barne eskura ditugun teknologiak sartzen dira).

BARNEKO FEEDBACK: Barneko ebaluaketa edo kontrola, programaren edo proiektuaren barne egiten dena.

BEHARRA: Egungo egoera eta nahi den egoera edo egoera ideala erkatzearen ondorioa, itxaropenak, balio iritziak, banakoen ezaugarriak eta beste zenbait faktore kontuan izan ondoren. Ideologiak eta baloreek garrantzi erabakigarria dute. Hartzaileen, teknikarien eta politikoen artean kontsentsua daitezke. Beharren sailkapen mota asko daude. Guk erabiliko dugunean, ordea, arau beharrak, sumatutako beharrak, adierazitakoak eta erkatutakoak bereizten dira (ikus apunteak).

BEHARREN ETA BALIABIDEEN EBALUAKETA: Erabiltzaileen gaitasun mailaren zehaztapena (hasierako egoera). Adierazleetan zehaztu behar da. Oro har, termino honek azterketa eta sistematikoki bildutako eta ordenatutako informazioan, datuetan eta egintzetan oinarritutako egoera baten zehaztapena adierazten du. Bere baitan jarduerak, eginkizunak, teknikak, estiloak,... sartzen dira.

EBALUAKETA ADIERAZLEA: Errepikapen bat da. Adierazle guztiek ematen dute ebaluaketa egiteko aukera.

Efizientzia: eginkizunak burutzea lortu nahi diren emaitzak lortzeko, baliabideetan ahalik eta gasturik txikiena izanez (kostua-hobaria adierazleak, edo gizarte ekintzaz hitz egingez, hobe, kostua-eraginkortasuna, efizientziaren neurri dira).

EGINKIZUNA: Helburu bat lortzeko programatu den programa edo proiektu bateko edo programa edo proiektuari eusteko beste agenteen ekintzak.

EMAITZAK: Aurreikusitako eta aurreikusi gabeko lorpenak eta produktua.

EMAITZEN EBALUAKETA, ERAGINKORTASUNA: Produktua eta lorpenak, eragina, ebaluatzen dugu, helburuak lortu ditugun ala ez edo zein neurritan; azken batean, eraginkorrak garen ala ez.

ENKARGUA: Hasiera batean mugatzen duten programa, proiektuari buruzko informazioa eta baliabideen zuzkidura. Informazioak programako edo proiektuko gai guztiak zehatz ditzake. Normalean helburua (xedea eta hartzaileak), lurraldea, helburu nagusiak,... mugatzen dira. Enkargua Administrazioak edo erakundeak berak egin izan ohi du.

ERABILTZAILEAK: Programa edo zerbitzu bat erabili eta xede den populazio zatia.

ERAGINA: Eskuhartzearen bidez lortzen diren ondorioak, aurrez ikusitakoak eta aurrez ikusigabeak, nahi izan direnak eta ez.

Eraginkortasuna: aurreikusitako emaitzak zenbateraino lortu diren.

EREMUA: Inguruarekin, "espazioarekin" lotuta dago. Programaren eremu geografikoa da, bere baitan hartzen duen lurraldea. Proiektuaren eremua da, era berean, esku hartzea burutzen den espazioa, ingurua (esaterako, haur eta gazteen moldaezintasunari aurre egiteko proiektu komunitario batean, kalea, eskola, familia, komunitatearen baliabideak, eta abar).

Eskaera sumatutako edo jasotako beharraren kontzeptuarekin identifikatzen da. Gogora adierazitako beharrak ez direla berbalizazioak, hartzaileek zerbitzuen inguruan dituzten portaerak baizik.

ESKAERA: Erabiltzaileak behartzat jo eta adierazi edo berbalizatutako alderdiak dira. Eskaera beti zehatza izaten da, erabiltzaileak behar gisa adierazi duena. Kontuan izanik, profesional batek arazoa definitzen duen erari zenbateraino egokitzen zaion eta erabiltzaileak bere erantzukizuna arazoan onartzen duen neurrian, lau motatako eskaerak bereiz daitezke: estalia, desbideratua, laguntzako eta partaidetzakoa.

ESKUHARTZEA: Informazioaren eta baliabideen inguruan eta aurreikusitako emaitzak lortzeko programa edo proiektu baten barne burutzen diren ekintzen multzoa. Beraz, bere baitan planifikazio funtzioak sartzen dira. Ebaluaketa eta programaketa egitea eskuhartzea da.

ESTILOAK: Egiteko moduak dira, jarrerak, portaeretan nolabaiteko isla dutenak. Portaera edo eginkizun bera (bilera bat zuzentzea) aldatu egiten da lider zuzendari batek edo partehartzaile batek zuzentzen duenaren arabera. Batez ere, hezkuntza edo pedagogia estiloak interesatzen zaizkigu. Eredu klasikoak dira, estilo zuzentzaileak, laissez-faire edo partehartzaileak.

FEEDBACK: osaketa (proiektuak berak sortzen duen informazioaren ebaluazioaren bidez sortzen den informazioa aldaketak egiteko).

FUNTZIOA: Eginkizunen multzo bat jasotzen duen kategoria (abstrakzioa).

FUNTZIOAK: Eginkizunen kategoriak (informazioa ematea, orientabideak).

GAITASUNAK: trebetasunak, eskumenak.

Gauza da erabakitzea, zer lortu nahi den, nola lortu nahi den, noiz, zer baliabideekin, non eta norentzat,...

HARTZAILEAK: esku hartzearen xede edo programa edo zerbitzu baten erabiltzaile izan daitezkeen populazioa. Populazio xede edo populazio helburu.

HELBURU OPERATIBOA: Eskuhartzearen ondorioz hartzaileengan espero eta zuzenean beha daitezkeen portaerak. Helburu operatiboak adierazleak dira.

HELBURUA (Programa edo proiektu batena): Xedea eta hartzaileak.

HELBURUA: Eskuhartzearen ondorioz hartzaileengan edo erabiltzaileengan espero dugun aldaketa.

HIPOTESIA: Gure ikuspegitik arazoa azal dezakeen edo dezaketen alderdia(k). Hipotesi orok darama berez aldagai bat; esaterako, gure hipotesia "informazio falta" bada, aldagaia "informazioa" da.

HONDAKINAK: Lortzen ez den helburuaren zatia, faktore baldintzatzaileen eraginez.

HONDARRAK: Material nahiz giza baliabideak erabili ondoren geratzen diren egoeran.

INFORMAZIOA: Arauak, irizpideak, eskuhartze moduak, hartzaileen eta erabiltzaileen ezaugarriak eta beren egoera, programak eta proiektuak,...

INPLEMENTAZIOA: Guk programaketan jaso dena betetzea deritzogu, eta alde batera uzten ditugu, bai planifikazio funtzioak: ebaluaketa eta programaketa, eta bai eginkizunak ere (jarduerak antolatzea zuzendurik daudenak barne). Beraz, nagusiki eta batez ere, jarduerak gauzatzera (burutzera) mugatzen da. Literaturan, zenbaitetan, kontzeptu hau programa edo proiektua martxan jartzeko gauzatzen diren ekintzetara mugatzen da.

IRTEERAK: Informazioa, baliabideak, hondarrak, hondakinak, produktua, eragina.

JARDUERAK: Helburu bat lortzeari begira programatu diren ekintzak, erabiltzaileak burutzen dituztenak edo partaide dituenak.

JARRERAK: Zerbaiten aurreko prestutasuna.

KANPOKO FEEDBACK: Kanpoko ebaluaketa edo kontrola, programatik edo proiektutik kanpo egiten dena.

Literaturan aurki daiteke eskaeraren beste kontzeptu bat "nahien adierazpen ekonomikoa", alegia (eskaeraren diru beharraz hitz egiten da, dirurik ez badago ez dago eskaerarik). Horregatik, hobe izan liteke, sumatutako edo jasotako behararen kontzeptua.

METODOLOGIA: Hitzez hitz, metodoari buruzko tratatua, bidea..., helburu bat lortzeko egiten duguna. Geure kasuan helburuak lortzeko erabiltzen ditugun tresnen multzoa osatzen du. Gure egiteko modua, marko teorikoaren barne, azaltzen du, baloreak gure eskuhartzearen oinarrian.

MONITORIZAZIOA: Erabiltzaileen, emaitzen eta prozesuaren deskribapena. Ez da derrigorrezkoa kuantifikazioa baina ohikoa izaten da. Beharrezko baldintza bat da, baina ez da nahikoa ebaluaketa egiteko.

ONARTZEKO BALDINTZAK: Formulaturako onartzeko baldintzei, betebeharrak formalak deitzen diegu eta programa edo zerbitzu batetara heltzeko bete behar diren baldintzak dira. Badira, ordea, betebeharrak ez-formalak, zehaztu gabekoak. Eta hain zuzen ere, onartzeko betebeharrak ez-formal horien artean aurki daitezke, erabiltzaile ez diren hartzaile taldeak izateko arrazoiak.

PLANA: Epe luzera, kolektibo handi batekin (esaterako, populazioko sektore oso batekin) eskuhartze bat burutzeko gaitu behar diren baliabideak eta ezarri behar diren orientabideak eta estrategiak, beti ere, lurralde zabal batean garatu behar den irismen handiko helburu baten barne.

PLANIFIKAZIO FUNTZIOAK: Beharren eta baliabideen ebaluaketa, programaketa eta ebaluaketa.

PLANIFIKAZIOA: Geure buruari ezarri dizkiogun xedeak lortzeko dauzkagun baliabideen eta informazioaren antolaketa arrazionala.

PRODUKTUA: Burututako jarduerak, txostenak (informazioa), sortutako baliabideak.

PROGRAMA: Helburu bat lortzeko begira, elkarrekin lotutako eta koordinatutako proiektuen multzoa.

PROGRAMAKETA: Gauzatu behar dugun proiektu jakin baten diseinua.

PROIEKTUA: Helburu batzuk lortzeko begira, elkarrekin estuki lotutako eta antolatutako jardueren multzoa.

PROZESUA: Aurreikusitako emaitzak lortzeko daukagun informazioaren eta baliabideen gainean egindako lanak.

PROZESUAREN EBALUAKETA, EFIZIENTZIA: Nola egin dugun ebaluatzen dugu, ez emaitzak, ondo egiten ari garen (efizientzia): Proiektuan parte hartzen duen agente bakoitzak bere eginkizunak ondo burutzen dituen, baliabideak nahikoak diren, epeak betetzen ari garen, koordinazioa ondo egiten ari garen,... ebaluatzen dugu, edo, besterik gabe, nola egin genezakeen hobeto pentsa genezake.

SARRERAK: Informazioa eta baliabideak

GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA PLANIFIKATZEKO SISTEMA

SEKUENTZIAK ETA DENBORA-EPEAK: Denborarekin lotutako gaiak dira. Eginkizun bat, jarduera bat, proiektu bat,... gauzatzeak eramango duen denbora ezarri nahi dugunean, lehenik, jardueren sekuentzia bat ezarri beharko dugu (zein den ordena, zein zeinen menpeko den) eta, ondoren, zati bakoitza garatzeko beharko den denbora eta, eginkizunen arteko elkar menpekotasuna kontuan izanik, denbora guztira (hau da, kronograma bat egin) finkatu beharko dugu.

SISTEMA: Osotasun bat eta helburu bat lortu nahirik, elkarmenpekotasunezko egoeran, elkarrekin lotuta dauden elementuen multzoa da (eta sistema irekien kasuan inguruarekin duten lotura hartu behar da kontuan).

TEKNIKAK: Gaitasun bat eskatzen duten jarduera edo eginkizun konplexuak dira (gaitasun eta ezagupen espezializatuak). Beharren ebaluaketarako teknikak, taldeen dinamika teknikak eta abar bereizten dira.